

ezagutu *descubre*

ERROMATARREN GARAIKO EPIGRAFIA ARABAN LA EPIGRAFÍA ROMANA EN ÁLAVA

Idazkera agertzen den uneak, historiaurreko garaiekin amaitzen eta aro historikoaren hasiera markatzen ditu. Erromatar mundua izan zen lehenbiziko aldiz idazkera zernahitarako erabili zuena, bai maila ofizialean bai eguneroko bizitzan ere, Gizakiaren historian sekulako aldakuntza ekarriko zuen tresna berritzaile horrek Araban ere izan zuen eragina.

Epigrafía izena ematen zaio euskarri gogorrean (hau da, harriaren, marmolearen, metalearen, zeramikaren, etab.) idatzitako dokumentuak aztertzen dituen jakintza arloari. Dokumentu horiek inskripzioak deitzen dira. Gizarte batek bururatuko ekintzak inskripzio moduan idatziz jasotzeko ohitura, hainbat kultura (Egipto, Mesopotamia, Grezia, Erroma, etab.) eta aro desberdinak (Aintzinatek gaur egungo garaia arte) bat datozen egitate bat da. Baina grekoerromatar kulturaren, haren erabilera hain hedaturik dago non zibilizazio horren bereizgarri bat bezala azaltzen zaigun.

Erromatarren garaiko hainbeste inskripzio agertu dira, non ezinezkoa den horien kopurua gutxi gora-behera ere finkatzea, etengabe material berriak aurkitzen dira eta. Baina horren garrantzia ez datza kopuruan bakarrik, baizik eta haietan gizarte egiturez, instituzioez, legez, erlijiozko sinesteez eta, oro har, Antzinateko bizitzaren alderdi guztiez aurkitzen ditugun datuetan.

Informazio horrek, arkeologikak, numismatikak eta literatur testuek eskaintzen digutenarekin batera, antzinako historia eta zibilizazioa hobeto ezagutzen laguntzen digu.

Inskripzioak, gehienbat harritan landuak, santutegietan, eraikuntza publikoetan hilerrietan, komunikazio bideetan, pertsonaia gailenak ohoratzen zituzten estatuetan, etab. ipintzen ziren. Baina tipo askotako aztarna epigrafikoak daude. Honako hauek, esate baterako hormetan edo zeramikazko ontzietan, olio lanpaetan edo edozein motatako trestentan egindako grafitoak.

Beren helburuaren arabera, hainbat motatako inskripzioak daude: **oroitzapenezkoak** (gertakari edo ekimen publiko zein pribatu bat gogor-

araztekoak), **ohorezkoak** (komunitatean karguak eduki dituzten herritarrei, enperadoreari edo enperadorearen familiako kideei eskainiak), **hilobikoak** (hilobi batekin loturikoak), **zin-hitzekoak** (erlijio gurpenezko helburua dutenak), **jurídikoak**, **bideetakoak** (komunikazio bideekin loturikoak), eta abar. Beti ez dago testua edo epigrafearen edukia eta euskarri mota de formaren arteko elkarrekotasunik; esate baterako, sarkofago batek hilobi-inskripzioak besterik ez badauka ere, plaka batek, berriz, -eta haxe da eukarririk ohizkoena- edozein motatako testuak jaso ditzake.

Euskarriak, beren formaren arabera, zenbait motatan sailkatzen dira; hauek dira aipagarrienak; **blokeak** (sei aldeko monolitoak) **plakak** (aurrekoen antzekoak, baina lodiera txikiagoak) **arak edo aldareak** (jatorrian sakrifizio erritu bat egiteko erabiltzen zen euskarria, edo dededunak santutegi batean utzitakoa, promesa bat bete izanaren agiri modua -ex voto-), **hilarriak** (hilobi inskripzioak, lurtean finkatuta hilobiak markatzekoak; askotariko formak izan ditzakete- angeluzuzena, biribilerdiko goialdearekin, disko-itxurakoa, eta abar-), **bidarriak** (zilindro, kono edo paralelepipedo baten formako blokea, zutik ipinita, bidetik doanari egindako bidea edo egiteko dagoena adierazten dion testu batekin), **instrumenta** izenekoak (hauen barruan, hainbat motatako gauzak daude: zeramikazko ontzia, anforak, eta abar).

Inskripzio bat egitea erabakita gero, fabrikazio prozesu bat zegoen. Hasteko, harrobi batetik harri bloke bat atera eta **officina** edo lantegian prestatu behar zen, lantzeko. Bertan, artisauek (**artífices**) nahi zen forma ematen zioten (hilarria, ara, idulkia, bidarria...), eta, apaindurarik eduki behar bazuen, hori osatzen zuten gaiak zizelkatu egiten zituzten. Aldi berean, inskripzioa egin behar zen aldean prestatu egiten zen, **Lapicida** esaten zitzaion magistratu batek edo herritar batek idatzita bidalitako testua grabatzeko ardura zuen langileari. Horretarako, lehenago testu hori harriaren azalean antolatu behar zuen, zizelkatzerakoan jarraitu beharko ziren lerroak ikatzez edo beste bide batez marraztuz.

La aparición de la escritura cierra el capítulo de los tiempos prehistóricos y abre el libro de la Historia. El mundo romano fue el primero en generalizar el uso de la escritura, tanto a nivel oficial como doméstico. Álava no será ajena a esta revolucionaria herramienta que tanto habrá de cambiar la historia de los seres humanos.

Con el nombre de epigrafía se designa la disciplina que se encarga del estudio de los documentos escritos sobre un soporteduro (piedra, mármol, metal, cerámica, etc.), a los que llamamos inscripciones. La costumbre de dejar constancia escrita de los diferentes actos realizados por una sociedad bajo la forma de una inscripción es un hecho común a distintas culturas (Egipto, Mesopotamia, Grecia, Roma, etc.) y a diferentes épocas (desde la Antigüedad hasta nuestros días). Pero es en la cultura grecorromana donde su utilización está tan extendida que se convierte en un rasgo distintivo de su civilización. El número de inscripciones aparecidas correspondientes al periodo romano alcanza tal dimensión que es imposible llegar a establecer una cifra aproximada, puesto que constantemente se descubren nuevos ejemplares. Pero su importancia no sólo descansa en su número sino en los datos que en ellas encontramos sobre las estructuras sociales, las instituciones, las leyes, las creencias religiosas y, en general, sobre los distintos aspectos de la vida en la Antigüedad. Esta información, junto con la que proporcionan la arqueología, la numismática y los textos literarios, nos acerca a un mejor conocimiento de la historia y la civilización antiguas.

Las inscripciones, mayoritariamente grabadas sobre piedra, se colocaban en los santuarios, en los edificios públicos, en las necrópolis, en las vías de comunicación, en estatuas honrando a personajes destacados, etc. Pero los restos epigráficos engloban una enorme variedad de tipos que incluyen los grafitos realizados en las paredes o en los vasos de cerámica, lucernas o cualquier tipo de utensilio.



*D(is) M(anibus) /-
Manes jainkoei / A los dioses Manes*

*Santi Kurutze Kanpezuko hilarria
Estela de Santa Cruz de Campezo.*

Según la función para la que habían sido creados, encontramos **epígrafes conmemorativos** (destinados a recordar un hecho o una iniciativa pública o privada), **honoríficos** (dedicados a ciudadanos que han ocupado cargos en la comunidad, al emperador o a los miembros de la familia imperial) **funerarios** (asociados a una sepultura), **votivos** (con una finalidad religiosa de culto), **jurídicos**, **itinerarios** (vinculados con las vías de comunicación), etc. No siempre existe una correspondencia entre el contenido del texto o epígrafe y la forma o el tipo de soporte, de tal manera que si bien un sarcófago sólo contiene inscripciones funerarias, por el contrario, una placa- el soporte más extendido- puede recoger cualquier tipo de texto.

Atendiendo a la forma del soporte se establecen distinciones entre las que, por su frecuencia, destacan los **bloques** (piezas monolíticas de seis caras), **placas** (de idénticas características pero de menor espesor), **aras o altares** (soporte destinado originariamente a consumir un rito sacrificial o dejado por los fieles en un santuario como testimonio del cumplimiento de una promesa -ex voto-), **estelas** (inscripción funeraria destinada a ser hincada en el suelo para marcar una sepultura; pueden tener una morfología variada -rectangular, con la cabeza semicircular, discoidea, etc.-), **miliarios** (bloque de forma cilíndrica, cónica o paralelepípeda en disposición vertical con un texto que indica a quien transita por una vía el camino recorrido o por recorrer), **instrumenta** (incluye distintos tipos de objetos -vasos cerámicos, ánforas, etc.-). La decisión de realizar una inscripción implicaba un proceso de fabricación que se iniciaba con la extracción de un bloque de piedra en una cantera y su preparación para su posterior tallado en el taller u **officina**, donde los artesanos (artífices) le daban la forma deseada (estela, ara, pedestal, miliario...) y, si llevaba decoración, se esculpían los distintos motivos que la componían. Al mismo tiempo se preparaba la superficie destinada a contener el epígrafe. El **lapicida** era el encargado de grabar el texto manuscrito que le había sido remitido por un magistrado o un particular, previa ordenación del mismo sobre la piedra dibujando mediante carbón, etc. los trazos que el cincel iba a seguir posteriormente.



*Zeramikaren egindako grafitoa
Grafito en cerámica
Arkaia*



San Esteban de Treviño.
Hilobi-blokeal/Bloque funerario

M(arcus) Porcius /Ausci fi(lius) /Quir(ina tribu) Toni/us an(norum)
LXXV / h(ic) s(itus) e(st) / H(eres) f(ecit) e(x) p(ecunia) l(egata)

Hemen datza Marcus Porcius Tonus, Auscusen semca, Quirina leinukoa, hirurogeita hamabost urtekoa, Haren oinordekoak egin zuen utzitako diruarekin

Aquí yace Marcys Porcius Tonus, hijo de Auscus, de la tribu Quirina, de setenz y cinco años. Su heredero lo hizo con el dinero legado..



Veleiako Ara /Ara de Veleia

[E]uca[r] / [p]us r(ei) p(ublicae) /
Veleian(orum) / ser(uus) / Matri / Deae
/ dedi[cl]auit

Eucarpusek, veleiarren errepublikaren (edo errepublika veleiarren) esklaboak, Ama Jainkosari eskaini zion. Eucarpo, esclavo de la república de los veleianos (o veleiana), lo dedicó a la Diosa Madre.



Iruña-Veleia.
Balizko tabula hospitalis zatia.
Fragmento de posible tabula hospitalis
Brontzeal /Bronze



Arkaia inskripzio baten zatia.
Fragmento de inscripción de Arkaia



Villanañeko disko-itxurako hillarria
Estela discoidea de Villanañe

D(is) M(anibus) /Antestia /Euterpe /
s(ibi) p(osuit) / [an(norum)]--[XXV]

Manes jainkoei. Hogeita bost (?) urteko Antestia Euterpek berezatjarri zuen. A los dioses Manes. Antestia Euterpe de veinticinco (?) años puso para sí misma.



Araban gaur egun erromatarren garai-ko berrehun aza epigrafiko baino gehiago daude jasota -gehienak inskripzio zatiak dira- Horietako batzuek XVII. mendeaz geroztik ezagutzen dira, baina, batez ere, Prestamerok (1733-1817) eta geroago F. Baraibarrek (1853-1918) egindako lanen ondorioz hasi zen gure probintziako erromatar epigrafiari buruzko jakingura sortzen.

Aztarnak lurraldeko hainbat eremutan agertu badira ere, aurkikundeak batez ere XXXIV. bidearen inguruetan pilatzen dira. Bide horrek Asturica Augusta (egungo Astorga) eta Burdigala (Bordele) komunikatzen zituen. Bertan, bi gune daude inkripzio kopuru handiena dutenak: batetik, Iruñako erromatar hiria (Veleia) eta inguruak, eta bestetik, Durruma Donemilaga, Alaitza-Luzkando, Okariz eta ingurueta herriek osatzen dutena. Horiei. Kontrasta, Angostina eta Cabriana gehitu behar zaizkie. Material hori, gehienbat, baselizak eta elizak eraikitze berrerrabilita agertu da. Batzuk, halanola Donelako baseliza, Iruñan dagoena, Okarizko San Migelena, edo Luzkandoko eliza, desagertuak daude gaur egun, baina beste batzuek. esaterako, Durrumako elizak, Elizmendiko Andre Mariaren baselizak, Kontrastan dagoenak, edo Angostinako San Bartolome baselizak, oraindik ere ageri dituzte aztarna horiek beren hormetan.

Gainontzekoak halabeharrez aurkitu dira, obrak egitean edo soroak lantzean, edo Arkaiako eta Iruñako aztarnategietan egindako indusketetan.

Beste leku batzuetan gertatzen den bezalaxe, Arabako erromatar epigrafiaren ale gehienak hilarriak dira. Holakoetan, testuak epitafio bat jasolzen du, hildakoaren nortasuna adieraziz (izena eta adina) eta, zenbait kasutan, inskripzioa eginarazi duen pertsonaren izena eta bien arteko lotura ere bai (aita-semea, senarra-emaztea, etab.). Gutxi gora-behera K.o. II. mendetik aurrera, teituaren hasieran Manes jaínkoei (hau da, hilkloen arimei) inbokazio bat egiteko ohitura zabaldu zen, DM siglekin laburtuta. Talde honen barruan, askotariko apaingaiak (geometrikoak, gizaimdiak, animaliak, landareak,..) dauzkaten hilarriak dira ugariak; beren sinbologia hildakoen munduarekin loturik dago. Horien artean, ohizkoenak bi tankeratakoak dira: arkuz osatutako apaindura daukatenak, batzuetan erroseta txikiz eta ilgora batez lagunduta; eta testua eta erdiko apaindura inguratzen dituen orla bat egiten duen mahatsondo-apaingai bat daukatenak. Bigarren mota hau ohizkoa da Arabako ekialdeko partean eta Nafarroako



Luzkandoko hilarria / Estela de Luzkano

"D(is) M(anibus) / M(arco) Semp(ronio) / Fusco / Oculati (filio) an(norum) LVI Fuscinus (filius) p(atris) m(erenti) s(uo) fecit / H(ic) s(itus) e(st)."

Manes jaínkoei. Marcus Sempronius Fuscus, Oculaturen semea, berrogeita hamabost urtekoa. Haren seme Fuscinusek jarri dio aitari, merezi baitzuen. Hemen datza.

A los dioses manes. A Marcus Sempronius Fuscus, hijo de Oculatus, de 55 años. Fuscinius, su hijo, lo ha puesto a su padre que lo merecía. Aquí yace.

Bidarría. K.o. III. mendea. Miliario. Siglo III d.C. Errekaleor.

"[I]mp(eratori) Cae[sar(i)] / [M]arco Ca[s]siano Lat[i]n[i]o Postumo / Aug(usto)."

Cesar Marco Casiano Latino Postumo Augusto enperadoreari. Al emperador César Marco Casiano Latino Postumo Augusto.



mendebaldean dagoen lurralde batean.

Talde horretakoen ondoan. baina kopuru askoz ere txikiagoan, erlijiozko inskripzioak ere aurkitu dira, batez ere zinhitzezko arak. Azken hauek, erromatar jaínko-jaínkosak (Jupiter edo Tutela) edo bertokoak (Helasse) gurtzen ziren adierazgarri dira. Beren kopuru eskasagatik ia garrantzirik ez duten arren, monumentuetako inskripzioen aztarnak ere gorde dira (esate baterako, Arkaian eta Iruñan aurkitutakoak): testuaren zati batzuk besterik ageri ez denez orain arte ezin identifikatu izan den eraikuntzaren batekoak dira.

Bide sarearekin loturiko aztarnak ere geratu dira Araban, hala nola Postumo enperadorearen bidarría, Errekaleorren aurkitua, XXXIV. bidearekin loturik dagoena. Distantziarik adierazten ez duenez eta bidegintza edo konponketa lanik ere aipatzen ez duenez gero, badirudi haren helburua, egoera político gatazkatsu batean, enperadore horren boterea eta berarenganako atxikimendua agerian jartzea izan zela.

En Álava se conocen actualmente más de 200 vestigios epigráficos -en su mayoría fragmentos- de época romana. De algunos de ellos tenemos noticia desde el siglo XVII, pero es sobre todo a partir de los trabajos de L. de Prestamero (1733- 1817) y posteriormente de F. Baraibar(1853-1918) cuando el interés por la epigrafía romana de la provincia comienza a desarrollarse.

Aunque existen testimonios en distintas zonas del territorio, los hallazgos se concentran principalmente a lo largo de la vía XXXIV, que comunicaba Asturica Augusta (Astorga) con Burdigala (Burdeos). En ella destacan dos focos donde el volumen de inscripciones es mayor: la ciudad romana de Iruña Véleia y sus alrededores, y el núcleo formado por las localidades de San Román de San Millán, Alaiza-Luzcando, Ocariz, etc. A éstos se añaden los de Kontrasta, Angostina y Cabriana. En su mayor parte este material ha aparecido reutilizado en la construcción de ermitas e iglesias.

Algunas, como la ermita de Dónela en Iruña, la de San Miguel de Ocariz o la iglesia de Luzcando ya han desaparecido, pero otras como la iglesia de San Román, la ermita de Nuestra Señora de Elizmendi en Kontrasta o la de San Bartolomé en Angostina, todavía muestran hoy en sus paredes estos vestigios. El resto ha sido descubierto de forma fortuita durante la ejecución de obras o de trabajos de labor en el campo o en las excavaciones realizadas en los yacimientos de Akaia e Iruña, Como sucede en otras zonas, la epigrafía romana de Álava está compuesta mayoritariamente por estelas de carácter funerario. En ellas el texto encierra un epitafio en el que se indica la identidad del difunto (el nombre y la edad) acompañada en algunos casos por el nombre de la persona que ha dedicado la inscripción y la relación entre ambos (padre-hijo, esposo-esposa, etc.), A partir del siglo II d.C, aproximadamente se desarrolla la costumbre de encabezar el texto con una invocación a los dioses Manes o los dioses de la muerte, abreviada con las siglas D. M. Dentro de este conjunto predominan las estelas decoradas con distintos motivos (geométricos, humanos, animales, vegetales...) cuya simbología está relacionada con el mundo de los muertos. Entre ellas destacan por su frecuencia las que presentan una decoración a base de arcos acompañados en ocasiones por pequeñas rósetas y un creciente lunar y aquéllas en las que un motivo de vid forma una orla que enmarca el texto y la decoración central, como se observa por ejemplo en las estelas de Luzcando e Iburguren. Este segundo tipo es característico de la región situada en la zona oriental de Álava y occidental de Navarra. Junto a este grupo y con un número de ejemplares sensiblemente menor se han hallado inscripciones de carácter religioso, principalmente aras votivas, en las que se refleja el culto a divinidades romanas como Júpiter o Tutela e indígenas como Helasse.

Aunque prácticamente insignificantes por su reducido número, se han conservado restos de inscripciones de carácter monumental (como por ejemplo las halladas en Arkaia e Iruña), pertenecientes a algún edificio cuya identificación todavía no ha sido posible debido a la fragmentación del texto. En Álava han quedado también testimonios vinculados con la red viaria como el miliario perteneciente al emperador Póstumo descubierto en Errekaleor y relacionado con la vía XXXIV. Sin indicación de la distancia ni alusión a la realización de obras de construcción o reparación, su presencia parece destinada a poner de manifiesto el poder de este emperador y la adhesión a su persona en un contexto de inestabilidad política.